


# EGUZKI SISTEMAKO PAISAIA EZEZAGUNAK

Aina Bestard
Itzultzailea: Oskar Arana

**2022**
**ABENDUA**

**EZAGUTZA LIBURUA**

ISBN: **978-84-19319-02-9**
ORRIALDEAK: **80**
FORMATUA: **350 x 280 mm**
PREZIOA: **22,00 €**

10 urtetik aurrera

**HEZKUNTZA** **HISTORIA**
**ILUSTRATUA** **NATURA**

Gure planeta, Lurra, puntu ñimiño bat da, itzulika dabilena izar baten inguruan, Eguzkiaren inguruan. Astro handia da gure planeta-sistemaren erdigunea, eta haren grabitateak gure zazpi planeta haurrideak erakartzen ditu. Eguzki-sistemako planetak oso desberdinak dira, eta haietako paisaiak ere bai: Artizarrekoa desertu kiskalgarri bat da, Marten hauts gorria dago nonahi, Jupiterrek hodei-zurrunbiloak dauzka, Saturnok eraztun liluragarriak, Urano izotzezko bola erraldoi bat da eta Neptunok gas urdinkara bat du bereizgarri. Gonbidapena egiten dizugu urrutiko mundu horiek ezagutzeko, gure eguzki-sistemako paisaia zoragarrietara bidaiatzeko: hain daude urruti eta hain dira desberdinak, non gure adimenari neke baitzaio haiek irudikatzea.

- ***Lurreko paisaia galduak*** **album arrakastatsuaren ondoren, 60.000 ale baino gehiago saldu eta 12 hizkuntzatara itzuli eta hainbatetan saritu baitzuten, Aina Bestard ilustratzailea eguzki sistemaren paisaietan barneratu da oraingoan.**
- **Liburu ikusgarri honek tapa gogorra, orri-gardenkiak eta eguzki sistema osoaren hegal altxagarri bat du.**
- **Txileko ALMA behatoki astronomikoarekin lankidetzan egina da, edukien zorroztasuna eta zehaztasuna ziurtatzeko.**

**AINA BESTARD** (Mallorca, 1981) Ilustratzaile eta diseinatzailea da. Umetan, aitonak marrazten erakutsi zion, zale amorratua baitzen. Aita antropologoa eta ama artista du, eta, Ainak egindako liburuak ikusita, esan daiteke guztiengandik jaso duela zerbait. Diseinu grafikoa ikasi zuen, eta horri loturiko lanetan jardun den arren, gaur egun umeentzako liburuak egiten ditu; hamaika hizkuntzatan argitaratu dira eta hainbat sari jaso ditu horiengatik. Esate batera, *Lurreko paisaia galduak* album arrakastatsuarekin jaso zituen 2021eko Bolognako jaialdian aipamen berezia ez-fikziozko liburu onenari eta Nafarroako Liburu-denden 2021eko liburu ilustratuari saria.

> **“Eguzkia etzaten denean, gaueko zeruak unibertso baztergabe bat erakusten digu”.**






9 788419 319029

txalaparta
Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus